



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

**LONJAK ETA GAZTEEN GARAPENA: GALDAKAOKO KASUAREN
AZTERKETA**

Egilea: Iñigo Garcia Gallego

Zuzendaria: Israel Alonso

Leioan, 2016ko ekainaren 23an

AURKIBIDEA

Sarrera	5
1. Marko teorikoa.....	6
1.1 Gazteria gaur egun	6
1.1.1 Helduarora igarotzea.....	6
1.1.2 Denbora librea eta aisialdia.....	7
1.2 Lonjak gazte fenomeno bat gure inguruan.....	9
1.2.1 Fenomenoaren garapena eta historia.....	9
1.2.2 Lonjak: Helduen mundurako trantsizio tresna.....	11
1.2.3 Lonjak gazteen aisialdi alternatiba.....	12
1.2.4 Gazteen lonjen ezaugarriak.....	13
1.2.5 Lonjak eta helduen mundua. Hainbat begirada.....	15
2. Metodologia	16
3. Analisiak eta emaitzak	19
3.1 Galdakaoko lonjaren fenomenoaren errealitatearen hurbilketa	19
3.1.1 Galdakaoko gazte lonjeroen profila	19
3.1.2 Zergatik lonja bat izan? Gazteek sentitzen dituzten beharrianak....	20
3.1.3 Komunitatearen eta lonja-kideen arteko harremana	21
3.2 Lonjek gazteen garapenean duten eragina	22
3.2.1 Talde barneko eta talde kanpoko parte hartzea.....	22
3.2.2 Ikasitako bizitzarako trebeziak.....	23
3.3 Galdakaoko lonjen esku hartze prozesua. Arrazoiak eta elementu indartzaile eta baztertzailak	24
3.3.1 Aurre lana: diagnostikoa.....	24
3.3.2 Zergatik esku hartze sozio-hezitzailea lonjetan? Elkartekide, udaletxe eta hezitzaileek antzemandako beharrianak.....	25
3.3.3 Lehen sarrera txamietan.....	26
3.3.4 Harremana sortzea txamikideekin.....	27
3.3.5 Udaletxearekin harremana.....	28
3.3.6 Hezitzailearen rola eta profila.....	29
4. Ondorioak	29
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	31

6. Bestelako iturriak.....	32
7. Eranskinak.....	33
1. eranskina: “Las prácticas de éxito en participación y crecimiento juvenil en lonjas en Bizkaia” ikerketako helburuak	34
2. eranskina: Galdakaoko txamien kokapena eta kopurua zonaldeka	35
3. eranskina: Galdakaoko hezitzaileari egindako elkarrizketa eredua	37
4. eranskina: Galdakaoko gazteei egindako elkarrizketa eredua	39
5. eranskina: Galdakako elkarreentzako sintesi dokumentua	41
6. eranskina: Kategorizazio sistema	42
7. eranskina: Galdakaoko 1. Faseko hezitzaileari egindako elkarrizketaren transkripzioa	45
8. eranskina: Galdakaoko 1. faseko hezitzaileari egindako elkarrizketaren kategorizazioa	63
9. eranskina: Galdakaoko bi gazte lonjerori egindako elkarrizketaren transkripzioa.....	80
10. eranskina: Galdakaoko bi gazte lonjerori egindako elkarrizketaren kategorizazioa	90

Lonjak eta gazteen garapena: Galdakaoko kasuaren azterketa

Iñigo Garcia Gallego

UPV/EHU

Lan honek Galdakaoko lonjetan parte hartzen duten gazteengan lonjek duten eraginari heltzen dio. Hasiera batean lonjen fenomenoaren ibilbide historikoa laburbildu da. Jarraian lonjek gaztarotik helduarorako trantsizioan duten rola azterketa egin da. Dokumentazioaren irakurketa sakona eta gazteei zein hezitzaileei egindako elkarrizketen analisia egin da. Horietatik abiatuz Galdakaon martxan dagoen esku hartze sozio-hezitzailearen indarguneak eta ahulguneak identifikatu dira, hauek lan honetan analisatuz. Azterketa honetatik ondorioztatzen da Galdakaoko gazteriaren artean lonjak haien beharrian batzuk asetzeko bidea direla, hala nola, leku propioa izatekoa edota lagunekin bizipenak elkarbanatzekoa. Hau guztia kontuan izanik, lonjetan hezitzaileek nerabe eta gazteekin esku hartze sozio-hezitzailea egiteko aukera eta beharra ere sortu da.

Lonja, gazteria, esku hartzea, garapen pertsonala, Galdakao

Este trabajo aborda los efectos que las lonjas tienen sobre los jóvenes de Galdakao que participan en ellas. En un principio se realiza un recorrido histórico por el fenómeno de las lonjas. Después se examina el rol que las lonjas juegan en el paso de la juventud a la madurez. Se ha realizado un análisis de la documentación y entrevistas con jóvenes y educadores del caso analizado en Galdakao. Partiendo de esta base, se han identificado puntos fuertes y débiles de la intervención socioeducativa que se analizan en este trabajo. De esta investigación se desprende que las lonjas son un medio para satisfacer algunas de las necesidades de los jóvenes, como por ejemplo tener un lugar propio o compartir experiencias con los amigos. Teniendo en cuenta todo esto, las lonjas se han convertido en lugares en los que es posible y necesaria una acción socioeducativa con jóvenes y adolescentes.

Lonja, juventud, acción socioeducativa, desarrollo personal, Galdácano

This paper addresses the effects of the so called “lonjas”¹ among the young people participating in them in Galdakao. First of all, the historical development of “lonjas” has been summarized. Next, the role of these places in relation with the process to become an adult has been analysed. A perusal of the documentation has been carried out as well as interviews with educators and youngsters in Galdakao. On this basis, strengths and weaknesses of the socio-educational intervention that is being carried out in Galdakao have been identified and thus addressed in this paper. This investigations shows that they meet some of the needs of these youngsters, such as having their own meeting point or sharing experiences with their friends. Bearing all this in mind, these have become places where the intervention with adolescents and youngsters may be and should be done.

Lonja, youth, intervention, personal development, Galdakao

¹ This term describes a private place youngsters usually have in rent and that it is commonly used as a meeting point, a place to spend their free time with Friends etc

Sarrera

Gradu Amaierako Lan honetarako hautatutako gaia, *Lonjak eta gazteen garapena: Galdakaoko kasuaren azterketa* da. Lonjena, azken urteetan gure autonomia erkidegoan garrantzia irabaziz joan den gaia izan da. Lan honek lonjek gazteen garapenean duten eragina eta horietan martxan jartzen ari diren esku hartze sozio-hezitzaileak ditu ardatz. Izan ere, nahiz eta orain arte lonjen inguruan izandako ikuspuntua oro har ezkorra izan, gaur egun onartzen hasia da lonjak gazteen garapenerako tresna oso interesgarria izan daitezkeela.

Azken batean, ikerketa honek eta fenomeno honi buruz egindako beste hainbatek argi uzten duten bezala, lonjak, beste espazio publiko zein pribatuaren antzera, tabernak, topaguneak, zentro komertzialak... pertsonon parte bilakatu dira. Horietan, bizitzan erabilgarriak izango zaizkigun hainbat abilezi ikasten ditugu: gatazken kudeaketa, talde antolaketa, espazio propio bat izateak dituen ardurak, bankuarekin eta errentariarekin egin beharreko kudeaketa... Horiez gain, lonjan batzen diren pertsonen artean ezinbestekoa den elkarbizitzatik ere asko ikasteko aukera dago: jada ezagutzen dituzun pertsonekin beste eremu batean erlazionatzea, beste pertsona batzuk ezagutzea eta haiekin elkarbizitzen ikastea...

Galdakaoko egoeraren azterketa eginda, autonomi erkidegokoko beste hamaika udalerritan gertatzen den antzerakoa gertatzen dela ikusi dugu: gazte lonjeroen antzeko adina, lonjako dauden gazteen kopuru antzekoa, lonja izateko zailtasun bertsuak, lonjaren kudeaketan sortzen diren kontuak... Gainera, kontuan izanda Galdakaoko kasuan 50 lonja baino nahikotxo gehiago daudela aktibo gaur egun, benetan Galdakaoko gazterian presente zegoen kontua zela begi bistan zegoen. Aintzat izan beharra dago, ni neu gaztea izanik, lonjen kontua ere hurbiletik ukitzen ninduen errealitatea zela, eta horrek, aldi berean, hau aztertzekeo grina areagotu egiten zuela. Galdakaoko kasua aztertzerako orduan, batez ere bi alderdi nabarmendu dira: aisialdiaren kudeaketa eta gaztearen garapena. Izan ere, gazteak lonjetan batzeko jatorrizko arrazoia haien aisialdia helduen begietatik aldentuta kudeatzeko aukera izatea zela suposa zitekeen. Horri, lonjan igarotako tarte hauek haien garapen pertsonalean izan zezaketen eragina gehitu beharko genioke.

Azkenik, kasu azterketa hau, EHU-UPV, BFA-DFB eta Susterra elkarteak elkarlanean “Las prácticas de éxito en participación y crecimiento juvenil en lonjas en Bizkaia” egiten ari den ikerketaren barnean kokatzen da. Nik ikerketa honetan prozesu guztian zehar parte hartu dut, dokumentazioaren azterketatik hasi eta Galdakaoko

kasuan batez ere sakonduz. Horrez gain, ikerketako beste agente batzuekin egin diren bileretan parte hartu dut, bai eta Susterrak Galdakaoko udalerriko elkarteetako ordezkariekin egindako topaketa batean ere. Ikerketa honen azken xedea, lonjetan martxan jar daitezkeen esku hartzeetan kontu hartu beharreko “praktika onak” identifikatzea eta txosten batean batzea da.

Beraz, esan bezala, kasu azterketa honen helburua ere hauxe zen, Galdakaoko gazte lonjeroen fenomenoaren analizatu eta orokor daitezkeen zenbait indargune eta ahulgune identifikatzea, alegia.


1. Marko teorikoa

1.1 Gazteria gaur egun

1.1.1 Helduarora igarotzea

Duela urte batzuk arte, gaztaroa pertsona baten bizitzako garai nahiko zehatza zen. Izan ere, haurtzarotik helduarora igarotzeko aroa zen gaztaroa, eta bikotekide egonkorra, lana edota etxebizitza propioa izatearekin batera bukatzen zela kontsideratzen zen. Gaur egun, aldiz, kontzeptu hau asko lausotu da (Tejerina, Carbajo eta Martínez, 2012). Aipa berri ditugun baldintza hauek betetzea ez da lehen bezain erraza eta ohikoa, eta ondorioz, gaztaroaren adin muga atzeratu egin da. Oraingo gaztaroan, hainbat bizi arotako aldagaiak elkarrekin ager daitezke, eta aurrera pausoak eta atzera pausoak gertatzea ere ohikoa da. Adibidez, nahiz eta bikotekide egonkorra izan, gurasoen etxean bizitzen egon daiteke gaztea, eta aldi berean, ekonomikoki erdi-independiente izan lanean dabilelako. Du Bois-Raymond eta López-en (2004) esanetan hauei “transiciones tipo yo-yo” deritze, gaur egungo gazte gehienek bizitzen dituztenak, alegia. Honek esan nahi du, eredu lineal-tradizionala alde batera utzi eta aurrera eta atzera pausoak dituzten prozesuak bizi dituztela. Hauetan, ezjakintasuna eta zalantza dira nagusi, eta aldakorra den egoera horretan, gazteek gehienetan erabaki garrantzitsuak hartu behar dituzte lan edo hezkuntza arloan, esaterako. Casal, Garcia, Merino eta Quesadak (2006) zioten moduan (ikus 1. eskema) aipatutako helduarorako trantsizioak konplexua (*complejo*)-sinplea (*simple*) eta goiztiarra (*precoz*)-berantiarra (*con retraso*) ardatzak² kontuan izanik deskriba ditzakegu.

² Lehenengoak pertsona batek dituen ikasketen eta prestakuntzaren arabera lortutako lanpostua eta horren ondoriozko familia-emanzipazioa neurtzen du (y ardatza). Bigarrenak (x ardatza), berriz,



1. Eskema: Helduarorako igarotze bideak (Casal et al., 2006)

1.1.2 Denbora librea eta aisialdia

Cuencak (2011) aisialdia horrela definitzen zuen: “Vivir el ocio es ser consciente de la no obligatoriedad y de la finalidad no utilitaria de una acción externa o interna, habiendo elegido dicha acción en función de la satisfacción íntima que proporciona” (60-61 orr.). Jarraian erantsitako taulan, 2010ean estatu mailan egindako inkesta batean oinarrituta, gazteek haien denbora librea zertan ematen duten ikusiko dugu:

Actividades realizadas habitualmente por los jóvenes de 15 a 19 años durante su tiempo libre en general y en las noches de los fines de semana

Actividades realizadas habitualmente durante su tiempo libre		Actividades realizadas habitualmente durante las noches de los fines de semana	
Salir a reunirse con amigos	95,8%	Ir a bares, cafeterías, pubs	61,8%
Escuchar música, CD, cintas	93,2%	Ir a bailar, a discotecas	63,9%
Ver la TV	91,7%	Ir a casa de algún amigo/a	53,6%
Viajar	40,3%	Ir al cine	32,9%
Ir al cine	59,5%	Ir al restaurante	21,8%
Estar con mi novio/a, pareja	51,7%	Pasear	29,6%
Usar el ordenador	82,9%	Ir de botellón	37,9%
Hacer deporte	57,7%	Ir a conciertos	20,0%
Oír la radio	59,0%	Practicar algún deporte	11,4%

lanpostua eta emantzipazioa gertatu arte igarotako denbora neurtzen du. Beraz, eskema simple honetan oinarrituz, pertsona batek helduarora igarotzean bizi ditzakeen egoerak ikus ditzakegu: goiz lanean hasi baina kualifikazio baxuko lanpostuetan, berandu hasi eta lan kontratu prekarioekin edota gutxika-gutxika epe luzean lan baldintza hobek lortzen joatea, esaterako. Jarraian helduarorako igarotze hauetan denbora libreak eta aisialdiak zer nolako zeresana duen ikusiko dugu.

Taula 1: *El papel del ocio en la construcción social del joven. Ortega, C & Bayón;F (coords.). (2014)*

Ikus dezakegunez, oro har, burutzen dituzten jarduerak bi multzotan sailka genitzake asteburuan ala astegunetan egiten diren arabera. Apur bat aztertuz, asteburuetakoa jardueren kasuan, ia guztiek gastu ekonomiko nahiko handia dakartela ikusiko dugu. Jarduera orokorren kasuan, aldiz, lehenengo hiru sailkatuak lagunekin egin nahi izatekotan, gune komun jakina eta propioa beharrezkoa dela begi bistan geratzen da.

Datu hauek elkartegintzaren inguruko datuekin gurutzatzen baditugu, ondorio interesgarriak atera ditzakegu. Izan ere, aisialdiaren eremuan azken urteetan detektatu den joera elkartegintzaren beherakada izan da. Eurobarometro 14-aren datuak bat datoz Euskal Gazteria 2000 txostenean batutako datuekin (Ayarza, Fernandez eta Mendia, 2014). Horien arabera lau gaztetik bat baino gutxiago da elkarte baten parte (kirol arlokoak alde batera utzita). Datu hauei jarraiki, antzeman dena, gazteek erlazionatzeko eta antolatzeke era informalagoak gehiago erabiltzen dituztela da (Ayarza et al., 2014).

Hirugarren kontu bat ere aintzat hartzeko modukoa da, gazteek haien denbora libreaz edo aisialdiaz gozatzeko espazio eta gune fisikoak izateko beharra, hain zuzen ere. Hauek azaltzeko, taula sinple batez baliatuko gara:

Eremu mota	Egituraketa	Kudeaketa	Arautze maila	Adibideak
Elkarbanatua	Helduek xede jakinetarako prestatutako espazioak	Helduak	Erabatekoa (helduek erabakiak)	Liburutegia, kiroldegia, etxea, akademia
Propioa	Helduek edo gazteek xede jakinetarako prestatutakoak	Helduak edo gazteak	Malgua	Gaztetxea, lonja, "diskoteka", taberna zonaldea
Birziklatutakoa	Zonalde publikoak, helduek eraikiak	Administrazioa	Administrazioa eta tokian tokiko kulturak eta herritartasun ereduak ezarritakoa	Plazak, aterpeak, jende askorik gabeko kaleak
Zuzendutakoa	Helduak	Helduak	Helduak (kasu batzuetan gazteekin adostuak izan daiteke: topaguneak)	Kirol taldeak, aisialdi taldeak, kultura elkarteak, topaguneak

Taula 2: *Gazteentzako eremu motak (Tejerina et al., 2012) moldatua.*

Taulan agertzen denari dagokionez pare bat zehaztapen baino ez. Alde batetik, elkarbanatutakoen artean merkatalgune zentro handiak azpimarratu ditugu, azken urteetan aisialdi gune bihurtu direlako. Bestetik, birziklatutako eta propio legez kontsidera ditzakegun espazioen kasuan, administratibotik gehiago kontrolatzeko eta

arautzeko esfortzua egin izan da azken urteetan. Besteak beste, espazio publikoetan alkohola edateko debekua, taberna eta diskoteketan erretzeko debekua eta azkeneko hauetan sartzeko araudia zorrotzagoak ezarri izan dira (Tejerina et al., 2012).

Faktore hauek guztiek, esan bezalaxe, ondorioak ateratzen laguntzen digute. Gazteek leku propio baten beharra dute haien denbora librean lagunekin kudeatzeko, elkartegintza baino, nahiago dituzte egituraketa eta kudeaketa era malguagoak, eta gainera nahiko aurrekontu mugatua dute honetarako. Horregatik, lonjak, egoera honi erantzuna ematen dioten guneak bihurtu dira.

1.2. Lonjak: gazte fenomeno bat gure inguruan

1.2.1 Fenomenoaren garapena eta historia.

Lonjak eraikin bateko beheko partean eraikitako eta egokitutako lekuak dira. Berez, bulegoak, dendak eta bestelako komertzioak izateko asmoarekin diseinatuak izan dira baina lan honetan azkenaldian gazteek hauei ematen dieten beste funtzio bat aztertuko dugu.

Jorratzen ari garen lonjen fenomenoan, batik bat nerabe eta gazteak topatuko ditugu, hauek baitira jada kalera heldu baten zaintzaperik gabe ateratzen hasten direnak. Prozesu horren ondorioz, haurtzaroan ez zituzten beharrak sentitzen hasiko dira. Horien artean, haien leku propioa edota batzeko leku komuna izatea dago. Eta horretarako parkeko banku jakin bat, bus geltoki bat edota kale kantoiren bat aukera dezakete (Travlou, 2003). Hauek, ekonomikoki, ez dute kosturik, ez ditu heldu batek kontrolatzen eta ez dute egon ahal izateko baldintzarik eskatzen. Baina gazteak kaleetan pilatzeak historikoki helduak kezkatu dituen egoera izan da. Nahiz eta gazteek gune publikoak “pribatu” bezala erabiltzeko joera berria ez den, gertakizun hau, arrats-gauean gertatzen den kasuetan batez ere, droga kontsumoarekin, graffitiak margotzearekin eta mozkortzearekin lotzen hasiak dira. Ondorioz, espazio publikoak okupatzea jarrera antisozial gisa kontsideratua izan da luzaroan (Coffey, Hall, Williamson, 1999; Berrio-Otxoa, Hernández eta Martínez, 2002).

Baina historiari so egiten badiogu, azken urteetako gazteen bizimoduaren aldaketa baino lehenago, jendea jada horrelako elkartean batzen zela ikusiko dugu. Industrializazioarekin batera, XX. mendean, elkargune ziren kirol taldeen, mendizaleen edota gastronomia elkarten lokalak, aisialdian garrantzia irabaziz joan ziren. Geure

erkidegoan, gastronomia elkarteak, esaterako, gobernuaren kontrolatik at zegoen batzeko toki baten beharrari erantzuna emateko izan ziren sortuak (Laespada, Arostegi, Martínez eta Sarabia, 2008). Azken erreferentzia historiko hau, gobernuaren kontrolatik at zegoen leku fisiko bat izatearena, gaur eguneko lonjen fenomenoaren arrazoietakoa baten aurrekaria da. Izan ere, XXI. mendearan hasieran, helduak zalantzan jartzen hasi ziren gazteek egiten zuten haien aisialdiaren kudeaketa, eta hauei “ezkutatzeko” leku baten beharra sortu zitzaion.

Bigarren faktorea azken urteetan zabaldu diren zentro komertzialen eskutik dator. Izan ere, zentro komertzial hauek aisialdiaren ardatz bihurtu dira biztanleriaren zati batentzat. Aldi berean, merkataritza gero eta gehiago merkatalgune zentro erraldoietan zentratzeak, herrietako eta hirietako komertzio txikiei egin die kalte, hauetako asko ixtera behartuz. Hori dela eta, gero eta lokal gehiago husten joan dira herrien eta hirien erdiguneetan eta ondorioz, gazte lonjak horietan kokatzeko aukerak areagotu egin dira.

Azkenik, aintzat izan behar dugu autore batzuen arabera, lehen ere bazeudela gaur eguneko lonjen parekoak. Lazkano, Madariaga, Rubio eta Pinillos-en (2013) aburuz, honako hauexek dira lonjen aurrekariak: a) Herrietako “kintoen” peñak; b) “Guateque” delako jaiak; c) “Rave” delako jai ilegalak; d) Gastronomia elkarteak; e) Kirol taldeak; f) Herrialdeko etxeak (“Casas regionales”); g) Gaztetxeak.

Begi bistan geratzen da EAEn lonjen fenomenoak ibilbide historiko nahiko luzea izan duela, lehendik ere existitzen baitziren lonjen arbasoak izandakoak. Baina oso garrantzitsua da azpimarratzea, jorratzen ari garen gazteen beharrian hauek ez direla geure herrialdeko mugen barnean geratzen. Adibidez, Erresuma Batuan egindako azterketa batean oinarritutako “Self, space and place: youth identities and citizenship” (Coffey et al., 1999) eta “Adolescentes y el tiempo libre” (Berrio-Otxoa et al., 2002) txostenetan hango eta hemengo nerabe eta gazteen beharrianak bertsuak direla ikus daiteke. Galdetua izan zen mutil baten hitzak eredugarriak dira: “Basically everyone needs somewhere to go, somewhere to be with friends... and have a place that’s away from home and away from school.” Eta honi, helduek egoera honi ez erantzuteak sortarazten duen egoera adierazten duen adierazpena gehitzen dio: “We have got nowhere to go. So basically it was: we need somewhere to go, if you don’t give us somewhere to go then we are going to stand on the corner, and it is as simple as that”. Getxon egindako elkarrizketa batean gazte batek berdina adierazten zuen: “No tenemos dónde estar, no tenemos dónde ir, no somos niños para estar en el parque”.

1.2.2 Lonjak: Helduen mundurako trantsizio tresna

Lonjena, gaztaroan eta helduaroaren hastapenetan presente dagoen fenomeno izanda, hots, norberaren garapenean garrantzia handia duen aroan, hazteko eta norberaren nortasuna eraikitzeke aukera da. Lonjetan elkarbizitzarako beharrezkoak diren baldintzen berri izaten dute gazteek: gatazken kudeaketa, arauak, harremanak... Lokal hauetan, norberaren erantzukizuna lantzen da, bai eta taldearena ere. Izan ere, auto-kudeatutako tokiak izanik, garbiketa, ordainketak eta espazioaren banaketa gazte hauen ardurapean dauden zereginak dira. Laburki, lonja baten parte izateak, besteak beste, hazkunde pertsonaleko eremu hauetan aurrera egiten lagun dezake: ardura, elkarbizitza, gatazken kudeaketa eta harreman pertsonalak (Tejerina et al., 2012; Lazkano et al., 2013).

Azpimarratzekoa da jada aipatu dugun bezala auto-kudeatutako tokiak izanik, berdinen arteko kontrolaren bidez ezartzen direla “egin daitezkeenak”, “debeztatuta” daudenak eta, oro har, lokal barruan gertatzen den edozein jardunbide. Hau asko aldentzen da gazteek ezagutzen duten beste edozein eremutik, hauek beti kanpoko agente batzuek arautuak baitira (tabernak, gaztegunak, kalea...).

Komunitatearen edo auzoaren garapenean ere parte hartzen dute lonjakideek. Alde batetik, lonjak auzoetan egoteak, zonaldean gazteak daudela esan nahi du. Lonjakide horiek gehienetan auzoan egingo dituzte egin beharreko erosketak eta harremanak sortuko dituzte inguruko taberna, denda eta auzokideekin. Horrela, gazte hauek helduen munduarekin harremanetan egongo dira, eta honen funtzionamendua ezagutu eta aztertu ahal izango dute. Horri, hutsik zeuden lokal hauek alokairuan hartzen dituztela gehitzen badiogu, auzoaren suspergintza ekonomikoaren lagungarri bilakatzen direla ohartuko gara. Gainera, kasu batzuek erakusten digutenez, lonjetan dauden gazteek auzoan edo herrian tailerrak, txapelketak eta abar prestatzeko borondatea izan dute eta auzokide bileretan parte hartzen dute (Laespada et al., 2008). Hots, auzoaren parte aktibo bilaka daitezke.

Bukatzeko, lan munduaz arituko gara. Gure mendebaldeko gizartean, enpleguak, herritartasunaz gozatzeko eta herritar legez ditugun eskubide eta betebeharrak gauzatzeko kapaz izatean rol garrantzitsua jokatzen du. Horrenbestez, gazteek lanpostu duina lortzeko hainbeste zailtasun dituzten gizarte honetan, gazteen erabakitzeke ahalmena eta hitza izateke ahalmena oso mugatua geratu da. Ondorioz, emantzipazio prozesua, besteak beste, asko zaildu eta aldatu da. Aztergai ditugun lonjak, hain zuzen

ere, emantzipaziorako tarteko urratsa bihurtu dira. Emantzipazioarako eta berezko une eta gunea izateko behar hori, gazteek asteburua eta gaua “haien eremu propio” legez gero eta indar handiagoz sentitzean ikus dezakegu. (Casal, 2002; Rodriguez 2012). Tarte honetan, askeagoak dira eta erabakiak hartzeko eta denbora nahieran kudeatzeko aukera dute. Fenomeno honetan, lonjak askotan ardatz legez funtzionatzen du, taldekideen elkargune izanez eta beharrezkoak diren prestakuntzak egiteko tokia eskainiz. Gainera, arestian aipatutako gazteen garapen integralean ere zeresana du.

1.2.3 Lonjak gazteen aisialdi alternatiba

Lonja izateko arrazoiak oso anitzak badira ere, oro har batzuk behin eta berriro errepikatzen dira, eta gehienetan nerabe eta gazteen aisialdiaren kudeaketarekin daude lotuta. Arrazoi nagusia, lagunak elkartzeko erreferentziazko lekua izatea da. Bestalde, xede honetarako lonja bat beste aukera batzuen artean hautatzeko arrazoiak aipatuko ditugu. Alde batetik, gazteek eguraldiaren kontua aipatzen dute (Tejerina et al., 2012; Bilbao, Gaztañaga eta Imatz, 2013). Jakin badakigunez, Euskal Herrian hotza, euria eta eguraldi kaskarra orokorrean urtean zehar denboraldi luzeetan izan ohi ditugu. Beraz, maiz, kalean ibiltzea ez da aukerarik onena. Horrez gain, aipatu dugun lagunekin egoteko arrazoiari, helduen kontrolpean ez dagoen tokia dela gehitu beharra dago (Bilbao et al., 2013). Bide beretik jota, eta aurreko ataleko ildoari jarraituz, lonjak emantzipazioaren lehenengo urratsa dira, nolabaiteko autonomia ematen dutelako eta helduen kontrolpetik urrun geratzen direlako. Faktore hauei, adin txikikoak diren gazteen kasuan tabernetara joateko ezintasuna gehitzen zaie. Gazte eta nerabeei batez ere, taberna edo diskoteka batera joateko aukerarik ez izanda, aisialdi alternatibak murriztu egiten zaizkie eta beraz, lonja, hauen ordezkotara bideragarria bihurtzen da. Baina hau ez da adin txikikoen kasuan soilik gertatzen. Adinez nagusiak direnentzat, aukera hauek ere garestiak dira, eta beraz, alternatiba merkeagoetara jotzen dute (Bilbao et al., 2013). Azkenik, lasai edateko eta erretzeko lekua ere badela aipatzen dute gazte askok. Izan ere, kalean alkohola edatea debekatuta dago eta tabernetan jada ez dago erretzerik. Azken honi, droga ilegalak erretzeko aukera gehitzen zaio (Tejerina et al., 2012).

1.2.4 Gazteen lonjeen ezaugarriak

Geure autonomia erkidegoan lonja duten gazteen ehunekoak nahiko altua da, “Gazteen lonjak eta lokalak EAEn” ikerketatik (Bilbao et al. 2013) eratorritako datuek erakusten dutenez. Izan ere, gazteen %20ak dauka lonja geure autonomia erkidegoan. Hasiera batean, bost gaztetik bakarrak lonja izatea agian ez dirudi zifra esanguratsua. Baina ikerketan agertzen diren noiz edo noiz lonja izan dutenak gehitzen badizkiegu, %55era helduko gara. Honek esan nahi du, 15-29 urte bitarteko gazteen artean bitik batek lonja duela edo inoiz izan duela. Gainera, ehuneko honi, hainbat arrazoirengatik lonjarik ez duten, baina edukitzea gustatuko litzaiekeenak, eta lonjakideak izan gabe laguneri lonjetan sarritan egoten direnen kopurua gehi geniezaioke. Ondorioz, begi bistan geratzen da fenomeno hau ez dela gutxi batzuen kontua. Adin tarteei so eginez gero, gazte kopuru handiena 15-24 urte bitartean topatuko dugu, nahiz eta nagusiagoak direnen artean fenomeno hau ere existitzen den. Lonjetan dauden gazteen profil orokorrari dagokionez aipatzekoa da gehienbat mutilak direla lonjetan daudenak (%63). Gazte gehienak ikasleak dira soilik (%65). Jarraian, ikasi eta aldi berean lan egiten dutenak daude (%10) eta azkenik lanean soilik dabilzanak (%18). Emantzipatua egoteari dagokionez, oraindik gurasoen etxean bizi direnak gehiengoak dira inolako zalantza barik (%96).

Lonjako kideen egituraketari dagokionez, azpimarratzekoa da “koadrila” delako lagun taldearen kontzeptua. EAEn historikoki lagun taldeak koadrila delakoetan batu izan dira, bizitza sozialaren eta publikoaren oinarri izanik. Lonjen fenomenoak, pertsonak eta giza taldeak batzeko tokia diren heinean, hauengan ere eragina izan du. Datuek erakusten dutenaren arabera lonjen erdia baino gehiago lagun talde edo koadrila bakarrak osatutakoak dira (%58) (Bilbao et al. 2013). Halere, lonja bat izateak koadrilaren egituraketa alda dezake, koadrila banatuz edo beste batzuekin batuz. Tejerina-k et al.-ek (2012) dioten moduan “la lonja representa más una asociación económica y pragmática entre cuadrillas y grupos de amigos que un colectivo homogéneo”. Beraz, nahiz eta koadrila lagun harremanetan erreferentea izaten jarraitu, lonjen fenomenoak maiz moldaketarako beharra dakar.

Talde barneko harremani zein komunitatearekin sortzen diren elkarreraginei dagokionez interesgarria da oso lonjakideek lonja barneko harremani buruz aitortzen duten kontraesana. Maiz, lonjak koadrila batez baino gehiagoz osatuta egoteak, jendea ezagutzeko erraztasuna ematen du. Gainera, lonjetan gertatzen den elkarbizitzak

pertsonen arteko elkarreraginak dakartza ezinbestean. Halere, Tejerinak et al-ek (2012) batutako informazioan, hasiera batean sozializatzeko bitarteko izan daitekeela badirudi ere, gazteek lonjek beste alderdi bat ere badutela onartzen dute. Gazte batzuek aitortzen duten moduan, lonja izateak, batzuetan han sartuta geratzeko joera sortzen du, lonjan ez dagoen jendearengandik nolabait isolatuz.

Generoari dagokionez, nahiz eta daborduko esan dugun lonjero gehienak gizonetzkoak direla, lonja gehienak mistoak dira (%69). Gazteek izandako lonja kopuruari so eginez, gutxi gorabehera lonjetan dauden gazteen erdia jada beste lonja batean egona da. Beste erdiarentzat aldiz, gaur egungoa da lehen esperientzia. Kontuan hartzeko beste datu bat, lonjen azalerarena da. Lonjen %25ean 15 lonjakide baino gehiago batzen dira. Erlatiboki txikia izan daitekeen espazioan hainbeste jende batzuek lonjaren alokairuarekin zerikusia du. Horren ildotik, interesgarria da gazteek lonjen alokairuak ordaintzeko diru iturria zein den ikustea. %72ak bere poltsikotik ordaintzen du eta soilik gazteen %20aren kasuan dira gurasoak ordaintzen dutenak. Gazteen eta gurasoen artean ordaintzen dutenak ere badaude (%5) (Bilbao et al. 2013)

Lonja baten garapen unearen arabera ere duak azalduko ditugu. Horretarako, lonja eratzen den unea hartuko dugu jatorrizko puntutzat, eta horren arabera ikusiko dugu zer nolako garaietatik pasa daitezkeen lonja eta lonjakideak (Tejerina et al., 2012). Lehenik eta behin, lonja eratu berri denean, normalean lonjakideak ikasketa garaian dauden nerabeak edo gazteak izango dira. Lonja haientzat babeslekua izango da, hau da, helduen mundutik aldentzen den tokia, haien kontrolpean ez dagoena. Fase honetan, gazteak “saiakera-huts egite” sistemaren bidez kudeatuko dute lonjako elkarbizitza. Fase honen ostean, egonkortasun erlatiboko garaia etorriko da. Honetan, izandako bizipenek eta eskarmentuak egunerokotasuneko bizitzako gatazkak kudeatzen lagunduko dute. Jada gazteak nagusiagoak izango direnez, gehienak, formazio-lan munduratzeko prozesuan murgilduta egongo dira. Azkenik, hirugarren fasean sartuko lirateke. Honetan, lonjak “instituzionalizazio” prozesu bat jasango du. Lonja, bizitza ibilbide desberdinak hartu dituen lagunen arteko elkargunea bihurtuko da, eta jada pertsona horien bizitzaren parte egonkorra dela esan dezakegu.

Jarraian komunitateko hainbat agentek lonjen inguruan duten ikuspegia ikusiko dugu.

1.2.5 Lonjak eta helduen mundua. Hainbat begirada.

Jarraian, hainbat agenteren lonjekiko dituzten begiradak aztertuko ditugu. Gurasoez ari garenean, aipatzekoa da gazteek hiru motatako jarrerak bizi dituztela, guraso-gazte-lonja hirukia erreferentziatzat hartuz (Tejerina et al., 2012). Gazte batzuek, haien gurasoen jarrera “egiten uztearena” edo axolagabea dela baieztatzen dute, hots, ez diela inporta haiek lonja baten parte direnatz. Beste batzuen kasuan, berriz, gurasoek iritzi ezkorra adierazten dutela esaten dute, batez ere gurasoen kontroletik at dauden lokalak direlako. Honen adibide argia da alkohol eta droga kontsumoa lonja barnean kanpoan egiten dena baino handiagoa den ustea. Azkenik, hirugarren jarrera bat ere badago, baikorra, alegia. Guraso hauen aburuz, lonja leku egokia da, edo beste batzuk baino egokiagoa da, bederen. Egoki ikusten dute, nolabait non dauden dakitelako, han gertatzen den trebezia sozialen ikasketa balioesten dutelako eta berdinen arteko kontrola existitzen delako.

Udal administrazioaren iritziaren arabera, gazteriak orain arte araututako eta zuzendutako tokiak behar izan ditu, eta hori eskaini die (Lazkano et al., 2013). Gaur egun, joera hau aldatzen hasia da, eta beste mota bateko gazteentzako elkarguneak egon daitezkeela onartzen hasia da. Izan ere, gazteak bat datoz orain arte estrategiarik onena ikusezin bihurtzea (Tejerina et al., 2012) dela esatean. Batzuek aipatzen dutenaren arabera, udalarekin duten harreman bakarra udaltzainen bidezkoa da, eta udaltzainak ate joka agertzeak norbaitek kezaka hots egin diela esan nahi du. Beraz, gazte lonjero askok administrazioaren begietara ikusezin bihurtzeko joera du.

Udal batzuk baina, erkidegoko zenbait udalerritan aurrerapausoak egiten hasiak dira, dauden gazteengana heltzeko proposamen sozio-hezitzaileak diseinatuz. Jarraibide hauetako batzuek lonjekin lan egiteko proposamena plazaratzen dute (Tejerina et al., 2012). Nahiz eta hasiera batean, fenomeno honetan esku hartzeko proposamen arautzaileak eta kontrolatzaileak proposatu ziren (Bilbao et al., 2013), gaur egun jada, proposamen sozio-hezitzaileak errealitate bat dira.

Azkenik, gazteek eta errentariak haien artean duten erlazioak eta iritziak. Kasu honetan, iritziak bi taldetan bana daitezke, Tejerinak eta al.-ek (2012) proposatu bezala, gazteek errentariarekin lehendik harremana zutenetz aintzat izanik. Harremanen bat dutenek (senidea, laguna, gurasoen laguna...) edota jada urte luzez lonja alokatu dutenek ez dute inolako arazorik izaten. Are gehiago, askok erlazioa ona dela aitortzen dute. Errentaria ezezaguna den kasuetan egoera bestelakoa da. Kasu horietan, gazte gehienek

errentariarekiko beldurra edo etengabeko tentsioa sentitzen dutela diote, askotan ez baitakite zer unetan kanporatuko dituzten edo aldatuko dizkieten baldintzak, kontraturik ez dagoenean, batez ere.

Tejerinak et al.-ek (2012) auzokideen ikuspuntua ere, bi taldetan sailkatzen dute. Sailkapen hau, lonjetan dauden nerabe edota gazteekin jada arazorik izan duten arabera da. Arazoak izan dituzten auzokideek uste dute, lonjek, beste lokalek bezalaxe (tabernak adibidez), baldintza batzuk bete beharko lituzketela. Hau, ez da soilik zarata eta antzekoengatik eskatzen, baizik eta segurtasun arazoak ere ager daitezkeelako: suteak, ke pilaketak... Bestalde, inongo arazorik izan ez dutenak daude. Hauen aburuz, eragozpenak sortzen ez dituzten bitartean, gehiegizko zarata edota zikintasuna, adibidez, ez dago arrazoirik gazteak lonjetatik kaleratzeko (Laespada, 2008). Gainera, azpimarragarria da egoera puntualetan, gazteen eskaera dela medio, auzokideek botako zituzten altzariak eta besaulkiak eta sofak gazteei eman dizkietela.

Azkenik, hedabideen argitaratu eta hedatu dutena, lonjak-arazoak sisteman islatzen da. Zarata, droga kontsumoa, liskarrak edota suteak izan dira egunkarietan eta teleberrietan lonjen inguruan ikusi ahal izan ditugunak, eta beraz, plazaratutako irudia kaskarra dela eta, gazte lonjeroen irudia nahiko kaltetua izan da (Tejerina et al., 2012). Hurrengo atalean aztergai dugun lonjen fenomeno hau aztertzeke erabilitako metodologiaz jardungo gara.

2. Metodologia

Lan honen ikergaia, Galdakaoko lonjetan (15-30 urte bitartean) arrakasta jardunbideak parte hartzean eta gazteen garapenean da. Kasu azterketa hau, EHU-UPV, BFA-DFB eta Susterrak elkarteak elkarlanean “Las prácticas de éxito en participación y crecimiento juvenil en lonjas en Bizkaia” egiten ari den ikerketaren barnean kokatzen da. Ikerketa honetan ikuspegi kualitatiboa lehenetsi da, erabilitako metodologia komunikatiboa izanik. Metodologia honetan (Gómez, Siles eta Tejedor, 2012), ikergai diren gazte lonjakide eta gizarteko beste agenteen eta ikerlarien arteko harremana horizontala izan da. Horizontaltasun eta berdintasun hau ikerketa prozesu osoan bermatu ahal izateko (Flecha eta Tellado, 2015), aholku batzordea delakoaren laguntza izan dugu. Aholku batzorde hau lonjekin zuzenki edo zeharka erlazionatuta dauden gazteek osatu dute.

GrAL honen oinarria kasu azterketa izanik, aintzat hartu behar da Bisquerrak et al.-ek (2009) azpimarratu bezala, estrategia metodologiko hau oso egokia dela aztergai sozial edo hezitzaile bakarraren analisi sakon eta sistematikoa burutzeko. Gainera, kasu azterketa hastapenetan baino ez dauden eremuetan erabiltzeko oso aproposa da, kasu jakin bat aztertuz lan ildo berri asko ezarri eta ekarpen garrantzitsu asko egin daitezkeelako. Kasu azterketaren helburua errealitate jakin batetik teoria bat orokortzea ez bada ere, badago jardunbide jakin batzuk identifikatu eta transferitzea, betiere helmugako errealitatera egokituz (Rodriguez et al. 1996, Alvarezek eta Marotok aipatua, 2012).

Jarraian, Galdakaoko kasu azterketan erabilitako tresnez arituko gara laburki. Dokumentuen analisiak, eta horietatik eratorritako informazioa erabiltzeak, azterketari kutsu historikoa eransten dio (Valles, 1999), hots, orain arteko ibilbidearen berri ematen digu. Ikerketa honetan Galdakaon lonjen eremuan dagoen dokumentazioa analizatu dugu. Hain zuzen ere, “El fenómeno de las lonjas en Galdakao” (Suspergintza, 2014) txostena eta “Galdakaoko gazte lonjetan giza hezkuntza egindako programa” (Susterra, 2015).

Elkarrizketa sakona, elkarrizketa kualitatibo ere izendatua, elkarrizketa arrunt batean oinarritutako teknika da. Honetan, elkarrizketatzaileak ikerketarako informazio erabilgarria bilatzen du (Callejo, 2002). Kasu azterketa honetarako, hasierako faseaz arduratu zen Suspergintzako gizarte hezitzailea, bigarren fasean Galdakaon lan egindako 2 Susterrako gizarte hezitzaileetako bat eta lonjetan zebiltzan bi gazte elkarrizketatu genituen. Horretarako elkarrizketa gidoi erdi egituratua sortu genuen (ikus 3. eta 4. eranskinak). Batez besteko elkarrizketen iraupena 40 minutukoa izan da.

Gainera, beharrizanen azterketa gauzatu zen. Beharrizanen analisisa egoera baten azterketa sistematikoa da. Horretarako hainbat informazio iturri erabiltzen dira, horietatik eratorritako informazioa jarraian egingo den planifikazioaren oinarria izango delarik (Perez-Campanero, 1994). Informazio hau biltzeko, Susterrako hezitzaileek Galdakaoko elkarte guztiekin elkarrizketak antolatu zituzten. Horrela, haien fenomenoaren inguruko iritziaren, kezken eta, oro har, inguruko lonjen inguruan dituzten ezagutzen berri izan zuten. Ondoren, Susterrako hezitzaileekin informazio honen analisisan parte hartu dut, elkarte guztien ikuspegiak batzen dituen dokumentua osatuz. Horrez gain, hezitzaileek kaleko lana ere egin zuten, lonjak kokatu eta identifikatuz eta lonja kideen artean lehenengo kontaktu batzuk eginez. Gero, aipatu

dugun agente sozialekin egindako bileretatik sortutako dokumentu hau kontraste bileran aurkeztu genien, helburua komunean zituzten kezka eta ikuspegiez ohartu, eta hauei erantzuna emateko eta esku hartzea hobetzeko elkarteek eskaini zezaketena identifikatzea izanik. Prozesu honen ateratako datuak analisisian kontuan hartu dira.

Kasu azterketaren helburuak honakoak dira:

- Galdakaoko lonjetako nerabe eta gazteen parte hartzearen inguruko hainbat begirada analizatzea (administrazioa, gazteria, mundu profesionala, komunitatea).
- Galdakaoko kasuan lonjetako akonpainamendu sozio-hezitzailean agertzen diren indartzaile eta baztertzailak identifikatzea.
- Lonja-kideek komunitatearekin zer nolako harremana daukaten aztertzea.
- Lonjetan egoteak gazteen garapenean eta parte hartzean duen eragina ezagutzea.
- Galdakaoko kasu azterketa oinarri izanda, lonjen eremuan esku hartze sozio-hezitzailea burutzerakoan kontuan hartu beharreko gomendioak eta praktika onak identifikatzea.

Datuen analisiari dagokionez, lehenbizi egindako elkarrizketen transkripzioa egin nuen. Hori behin eginda, ikerketa globalerako osatutako kategorizazio sistema kontuan izanik, informazioa sailkatu nuen, horrela ildo beretik zihoan informazioa multzokatu eta analisirako prestatuz. Azkenik, sailkapen honetan batutako informazioaren analisi kualitatiboa egin nuen, horrela interpretazioak eta ondorioak osatzeko. Horrez gain, Galdakaoko elkarteekin egindako bileretatik eratorritako txostena aztertu nuen, horrela egoeraren ikuspegi zabalago eta anitzagoa osatuz. Era berean, arestian aipa bezala, orain arte Euskadi mailan eta autonomia erkidegoko hainbat udalerritan egindako beste ikerketa batzuen irakurketa sakona egin, eta horren interpretazioa eta Galdakaoko kasuarekin alderaketa egin dut, horrela gerorako lanaren oinarria ezarriz. Azkenik, informazio honekin guztiarekin, Galdakaoko esku hartze prozesuaren deskribapena egin, eta gakoak izan daitezkeen elementuak detektatu ditut.

3. Analisia eta emaitzak

3.1 Galdakaoko lonjaren fenomenoaren errealitatearen hurbilketa

3.1.1 Galdakaoko gazte lonjeroen profila

Hasteko esan beharra dago Galdakaon egindako azterketan ez direla gazteen profilak sakonean landu (Suspergintza, 2014). Izan ere, profila lanari, ikasketei, maila sozio-ekonomikoari, emantzipazio mailari eta beste hainbat ezaugarriari begira nahiko anitza zela ikusi baitzen. Halere, nahiz eta EAEko datuei erreparaturaz (Bilbao et al. 2013) aniztasun hori existitzen dela ikusten dugun, txosten honek lonjeroaren eredu-profila izango litzatekeena aurkezten digu: ikaslea, gizonezkoa eta emantzipatu gabea.

Txamien³ osaerari erreparaturaz gero, lonjakideen sexuari begiratzen badiogu, Galdakaoko datuak EAEkoekin bat datozela ikusiko dugu, %65a gizonezkoak eta %35a emakumezkoa, alegia. Lonjakide kopuruari dagokionez, berriz, Galdakaon bi sailkapen daude. 17-24 urteko lonjeroen kasuan gehienetan 20 pertsonak baino gehiagok osatzen dute lonjako gazte taldea. 25 urte edo gehiagokoen artean, aldiz, 12 edo gutxiagoko maiz topatzen ditugu. Datu hauek ere, EAE mailan daudenekin bateragarriak dira. Azkenik, eta lonjan egoteko uneari so eginez, astegunak eta asteburuak desberdinduko ditugu. Galdakaoren kasua bat dator erkidegoko datu orokorrekin. Hauen arabera, lonjak batez ere asteburuetan erabiltzen badira ere, badago astegun batzuetan joateko ohitura ere. Galdakaoko kasuan, 25 urte baino gehiagokoek astegunetan gehiago joateko ohitura badute, gazteagoak asteburuetan egoten dira batez ere. Egindako behaketek erakusten dute 17-24 urte bitarteko gazteek haien astegunetako arratsaldeak batez ere ikasten eta kirola egiten ematen dituztela. Nagusiagoak, berriz, terrazetan ikustea errazagoa da.

Puntu honetara helduta, aipatu beharra dago 12-15 urte bitarteko nerabeak batez ere eskolaz kanpoko ekintzetan, herriko plaza eta kale jakin batzuetan edota topaguneetan ematen dituztela arratsaldeak.

³ Esanguratsua da Galdakaoko gazteek alokatzen dituzten lokalei lonja baino “txamizo” edo “txami” esaten zaiela. Izen hau, RAE-n “chamizo” hitzaren 3. eta 4. sarreretan agertzen den esanguratik eratorria dela pentsatze dezakegu:

3. m. Chozta cubierta de [chamiza](#) (Ihierba).4. m. coloq. Tugurio sórdido de gente de muy mal vivir. Argi eta garbi dago definizio hauek ez ditugula hitzez hitz hartu behar, baina zeharka ulertuta lonja hauek zergatik “txami” izan hartu zuten imajina dezakegu. Lan honetan zehar, “lonja”, “lokal” zein “txami” berbak sinonimotzat joko ditugu, horrela errepikapena saihestuz.

Lehenengo behaketan (Suspergintza, 2014) 65 txami lokalizatu ziren, 55 inguru Galdakaon bertan eta besteak Usansoloko auzoan (ikus 2. Eranskina). Zifra hauek, bigarren fasean egindako eguneratzean baieztatu ziren (Susterra, 2015). 15-35 urte bitarteko gazteen artean, %35ak lonja du eta beste horrenbestek inoiz izan dute (Estudio sobre juventud y lonjas. Bizkaia).

3.1.2 Zergatik lonja bat izan? Gazteek sentitzen dituzten beharrizanak

Galdakaon gazteek lonja bat izateko aipatzen dituzten hiruzpalau arrazoiak bat datoz EAEk gai honi buruz argitaratutako txostenean. Alde batetik Euskal Herrian hain ohikoa den eguraldi euritsu eta txarretik babesteko lekua da. Aldi berean, lagunekin elkartzeko leku propioa da, eta horrek helduen kontroletik at egotea ahalbidetzen die. Elkarrizketa baten azken hau argi eta garbi adierazten zuten bi gaztek:

... una forma de escabullirte también de lo que es la calle. De no estar en alerta, yo que sé de igual los municipales por algunos que fumen porque fumen o porque hagan una cosa u otra... (CL.S.G.M.25.E).

Yo creo que cuando eres más jovencito, cuando pillas pues con 14-16 años, si que puede ser un, una manera de esconderte. Eres joven y quieres hacer tus cosas que no quieres que te vean los adultos, ni el pueblo, ni los vecinos. (CL.S.G.M.28.E).

Txamiez gain, tabernak ere elkartzeko gune direla ere aipatzen dute. Kontua da, hauetan kontsumitu beharra dagoela eta gainera edariak garestiak direla. Gainera, ezin dugu ahaztu, tabernak normalean pertsona helduagoekin konpartitu behar dituzten espazioak direla eta batzuek horrek deserosotasuna sortzen diela adierazten dutela. Beraz, tabernek zer edo zer hartzeko lekua izaten jarraitzen badute ere, “lagunekin egoteko leku” moduan eta arratsalde pasa egoteko leku moduan garrantzia galdu dute.

Beste arrazoietakoa bat txamiak elkargune izateko ematen duen aukera da. Askotan, asteburuetan parrandan atera aurretik batzeko eta edaten hasteko gune dela badiote ere, beste hainbat ekintza ere egiten dituztela ikus dezakegu elkarrizketa zati honetan:

Sí, o sea no, ya no es cómo vamos a decirlo una forma de vida no pero, sabes siempre va a estar ese punto de encuentro que vamos a estar con alguno de nuestros amigos que no van a ser siempre todos, no pero un día será uno, otro día otro o lo que dices tú si tenemos una cocina coger y hacer una cena, una comida, poder hacer ahí nuestro entretenimiento... CL.S.G.M.25.E.

Jarraian, gazteek lonja haien aisialdi alternatiba legez zergatik hautatu duten ulertzeko beste faktore batzuk aztertuko ditugu. Hasteko, galdakaoztar gazteek oso argi uzten dute haien denbora librean edonolako jarduerak egiteko azpiegiturarik ez dagoela.

Kirol jardueren arloan, esaterako, gazte batek “el único colegio que está abierto es el de Urreta creo. Que no es normal pero bueno.” CL.S.G.M.25.E zioen.

Izan ere, kirol arloan ezezik, Galdakaoko udaletxeak 15 urtetik aurrerako nerabe eta gazteentzat ez duela inongo aisialdi aukerarik eskaintzen baieztatu dezakegu. Esku hartze honetan parte hartu eta topaguneetako arduraduna ere baden hezitzailearen hitzetan: “Y además, me atrevería a decir por lo que vemos desde los topagunes aquí, que cada vez (...) empiezan más pronto a mirar el tema lonjas.” MF.CO.G.ED E. Beraz, dirudienagatik gazte batzuek, txamia izatearen kontua 15 urte ingururekin planteatzen hasten dira, hau da, topaguneetan jada lekurik ez duten adinetik aurrera.

Ikusitakoak ikusita, honako ondorioa atera dezakegu: 15 urtetik aurrera udal mailan gazteentzako aisialdi eskaintza hutsaren parekoa izanik, Galdakaoko gazteek haien elkartzeko leku propioa izateko beharretik eratorritako fenomenoak dela lonjena.

3.1.3 Komunitatearen eta lonja-kideen arteko harremana

Lonjen fenomenoak, Galdakaon alarma sozialen iturri ez dela baieztatzen dute *GDKO-ko Txamiak* proiekturen arduradunek. Behaketaren eta elkarrizketetatik ondorioztatu dute, udalerritik honetan normalizatuta dagoen fenomenoak dela, eta beraz ez duela udalerritik mailan gizarte gatazkaririk sortzen. Halere, gazteekin berba eginez, gehienek behin edo behin auzokideren batekin liskarren bat edo tirabiraren bat izan dutela onartzen dute. Halere, askotan, ingurukoekin erlaziorik sortu ez dutela, eta izatekotan oso txikia izan dela diote. Baina ez orokortze aldera, 1. faseko hezitzaileari egindako elkarrizketan, honako hau aitortu zigun:

De todo, un poco de todo porque de hecho también en el cuestionario se les preguntaba por esa relación con vecinos y vecinas (...) nos hemos encontrado con lonjas en las que tienen un colegio absoluto pues igual con las tiendas de al lado, con los vecinos de arriba y tal... (MF.CO.G.ED.E)

Beraz, nahiz eta askotan erlazioa nahiko eskasa dela dirudien, harreman oso ona dutenak ere badaude, jada komunitatearen parte direnak, alegia.

Puntu honetara ailegatuta, aipatzekoa da gazteek adierazten dutela txami bat lortzea nahiko zaila dela, nahiz eta errealitateak 70 bat txami badaudela erakusten digun. Gazteen hitzetan, oztoporik nagusia gazte taldearen adina da. Izan ere, gaztetxoenen kasuan ez omen dira fidatzen, eta gehiago kostatzen zaie lokala alokatzea.

Auzokideekin izandako liskar gehienak zarata handiegia sortzearen ondorioz etorri dira. Gazteek hau horrelaxe dela onartzen badute ere, maiz auzokideek inongo arrazoi justifikagarririk gabe salaketak jartzen dizkietela jakin izan dugu.

Udaletxeak eta gazteek duten erlazioa, neurri handi batean, mesfidantzazko dela esan genezake. Izan ere, gazteek diotenaren arabera, udaletxearen inguruan beti dago nolabaiteko susmoa. Ezin dugu iritzi hau orokortu, baina kontuan hartzeko modukoa dela kontsideratzen dugu, udaletxeak aurkeztuko dituen gazte politikek arrakastatsuak izatea nahi badute.

3.2. Lonjek gazteen garapenean duten eragina

3.2.1 Talde barneko eta talde kanpoko parte hartzea

Txamia duten gazteen kasuan, immobilismoa da nagusi hezitzaileek egindako behaketen arabera. Horrez gain, gazteekin egindako elkarrizketan, haiek argi eta garbi adierazi zuten:

Eso sí, la gente con las plays, ordenadores y de más, pues sociable poca (...) hay otros que es que no les mueves Ni pa' tras. Muy mal. Por mucho que les apoyes, les dices que venga vente aunque sea un ratillo, vamos a tomar algo o tal. No, no, no, yo me quedo aquí jugando porque tengo el "call of", porque no sé qué. CL.CS.G.M.25.E.

Argi dago hau ez dela txami guztien kasua. Gainera, ezin daiteke esan txami batean dauden partaide orok jarrera bera duenik. Halere, txami batek dituen desabantailak edo zer eragin "kaltegarri" duen galdetzean, ia beti plazaratzen den kontua da "apalankadarena". Arestian aipatzen genuen lagunentzako elkargunea izatea, helduen kontroletik at egotea eta leku propio izateak "apalankada" hau ahalbidetzen du.

Kasu batzuetan gazteak honetaz kontziente dira eta ez daude batere konforme, hots, zurrumbilo horretatik ateratzea gustatuko litzaielike. Tamalez, Susterrako hezitzaile batek 2. eta 3. fasean antzeman zuenez: "Orduan bakoitza bere pertsonan ari zen bizitzen oso prozesu aspergarri eta triste moduan egotearen sartuta txamian egun osoa. Baina euren artean eske ez zuten neke horretaz hitz egiten eta orduan izan zan heldu, jo eta egin ziguten holan, ireki zizkiguten besoak pilo bat" P.I.G.ED.E.

Ikusi berri dugunak zeresana ematen du bai barneko eta bai kanpoko parte hartzeari buruz. Izan ere, dirudienagatik txamikideak parrandan ateratzeko baino ez dira antolatzen, eta oso kasu gutxietan antolatzen dira beste mota bateko jarduerarako. "Pasotismo" honek, barneko parte hartzea eskasa dela adierazten duen neurri berean,

kanpora begira ere ezer gutxi egiten dutela erakusten du. Salbuespen orokortu bakarra Galdakaoko jaietako koadrila arteko txapelketa da, honetan txamietan dauden hainbat koadrilak parte hartzen baitute. Honetarako, taldeko antolakuntza behar da, probetan parte hartzeko beharrezko guztia prestatzeko, beste koadrila batzuei laguntza eskatzeko eta abar.

Halere, hurrengo atalean jorratuko den kontu bat aipatzea ezinbestekoa da, barneko parte hartzearekin edo antolakuntzarekin duen erlazioagatik. Txamirako dirua aurrezteko, garbiketa txandak egiteko edota janari eta edari makinak edukitzeko beharrezko “parte hartze” edo “antolakuntza” azpimarratzeko modukoa da.

3.2.2 Ikasitako bizitzarako trebeziak

Txamiak gazteentzat haien espazioa eta denbora kudeatzeko eta nahi duten moduan antolatzeko aukera ematen die. Gazte honen hitzek argi eta garbi uzten dute hau:

Y está guay, está guay un punto de encuentro como punto de hacer cosas de lo que tú dices, como manera de empezar a gestionarte tú mismo, porque al final es un grupo, un grupo joven, gente joven que tiene la oportunidad de, de organizarse. De organizar sus cosas, de organizar sus pagos, u organizar su “talde” de limpieza, u organizar sus fiestas, organizar todas las cosas que se hagan en cuadrilla. AC.OG.G.M.28.E.

Hitz hauetan ikus daiteke txami baten potentzialtasuna, nerabe eta gazteen garapenean hainbat trebezia lantzeko aukera emanez. Jarraian, garapen honetan zer ikasteko aukera daukaten eta zer nolako bideak bilatzen dituzten analizatuko dugu.

Txamia osatzen duten gazteen artean, kasu gehienetan joan etorriak ugariak direla konprobatu dugu. Arrazoiak oso anitzak izan daitezke baina horietako bat elkarbizitza eta sortzen diren gatazken ebazpena da. Gazte batek honela zioen:

Y hay quien sabe hablar las cosas, otro discutir las y otro pues solo chillarlas. Y así no se solucionan las cosas. Entonces cuando había que cortar de cuajo y decir oye o te espabilas y aprendes a, a ser razonable con esto y saber cómo ir tirando con una lonja y con los compañeros y con las cosas tuyas de la lonja o te piras. AC.CG.G.M.25.E.

Beraz, txamian gertatzen den elkarbizitza, nerabe eta gazte gehienentzat haien lehen esperientzia da. Gainera, auto-kudeatutako eremua denez, konponbideak edo bilatu behar dizkiete sortzen diren arazo edo egoerei. Hauetako bat da hain zuzen ere alokairuarena. Txami askotan, hau eta beste gastu batzuei aurre egiteko edari eta jaki makina bat jartzea erabaki dute. Makina hauek, kalean topa ditzakegunen berdinak, produktuen prezioa txikiagoa izatea ahalbidetzen die eta aldi berean diru apur bat

irabaztea. Diru hau, txamirako telebista berria, garbiketa produktuak edota alokairua merkeago ateratzera bideratuko da.

Txamiko garbiketa egiteko ere, ohikoa da txandetan antolatzea. Txanda hauek kontrolatzeko eta bete daitezzen ziurtatzeko isunak edo zigorrak jarri ohi dira, bai berandu egiteagatik bai eta ez betetzeagatik.

Txamia izatearen indarguneetako bat, kide bakoitzak egiten duena egiten duela, bere lagunez inguratuta egin dezakeela da. Elkarrekin egitean dago abantaila, laguntza eskatu ahal izatean. Gauzak horrela, txamikide batek honakoa esaten zuen:

Como por ejemplo en este txami, se han, se han sacado carreras la gente, o sea, sabes, o sea estudias, se ha estudiado, se han hecho trabajos, se ha buscado trabajo, y el hecho de, de poder hacerlo en grupo, pues ayuda, sabes de poder tener al colega para que te ayude con cosas que tú no sabes. AC.EM.G.M.28.E.

3.3 Galdakaoko lonjen esku hartze prozesua. Arrazoiak eta elementu indartzaile eta baztertzaileak

Orain arte gauzatu diren proiektuko bi faseetan hezitzaileek egindako behaketa eta elkarrizketetan hainbat oztopo eta aukera hauteman dituzte. Jarraian hauetaz arituko gara, hauek analizatu eta etorkizunean erabilgarriak izan daitezkeen jarraibideak zehazte aldera.

3.3.1 Aurre lana: diagnostikoa

Hasierako urratsa Galdakaoko auzoetatik hara eta hona ibiltzea izan zen, horrela zeuden txami guztien berri izateko eta hauek zonaldeka sailkatzeko. Txami horietan jendea gehienbat noiz zegoen hautematen ere saiatu ziren. Nahiz eta hau 1. fasean egin, 2. fasean berriro ere egin zen, hasierako txosteneko datuetan oinarrituz eguneratze lana egiteko. Lan honetarako, behaketa sinpleaz gain, auzokideei eta inguruko saltokikoei ere hauen berri zutenik galdetu zitzaien. 1. faseko hezitzaileak honela zioen: “quiero decir, lonjas que se cierran, otras que... hay mucho, mucho, mucho movimiento. Se les echa mucho de las lonjas (...) Entonces hay mucho movimiento. MI.D.G.ED.E”

Horrez gain, hasierako errealitatearen analisisa egiteko, Galdakaon azkeneko urteetan indarrean jarritako gazte politiken inguruko informazioa bildu zen. Diagnostikoa osoagoa izan zedin eta gazteen ahotsa kontua hartzeko asmoz, 1. fasearen amaieran

txamikide batzuk alkatearekin, kultura, kirol eta gazteriako zinegotziarekin eta hezitzailearekin batu ziren. Mota honetako bi bilera gauzatu ziren eta horietan batzuen eta besteen kezka eta beharrianak azaleratzeko aukera egon zen.

3.3.2 Zergatik esku hartze sozio-hezitzailea lonjetan? Elkartekide, udaletxe eta hezitzaileek antzemandako beharrianak

Lonjak, urte batzuetatik hona, gazteak biltzen dituen ohiko gunek bilakatu dira. Hori dela eta, gazteen bizitzaren zati bihurtu dira, haien erlazionatzeko, aisialdia kudeatzeko eta antolatzeke erak eraldatuz, besteak beste. Ondorioz, gunek hauek, nerabe eta gazte horiekin esku hartzeke aukera ere bihurtu badira. Galdakaoko udal administrazioa ere, lonjek gazteekin lan egiteke eskaintzen zituzten aukera hauek antzemanek, martxan jarri zen. Proiektuari hasiera Suspergintza elkarteak eman zion. Erakunde honek zuzendutako lehenengo fasearen ostean, Susterrak hartu zuen *GDKO txamiak* proiektua zuzentzeke ardura. Lehen fase honen helburu nagusia, alde batetik Galdakaoko txami kantitatea zehaztea eta hauek kokatzea zen. Bestetik, hezitzailearen eta gazteen arteke lehen kontaktua egin, eta horren bidez gazteen beharrik, interesak eta kezkek ezagutzea izan ziren xede.

2. fasean, hots, proiektua Susterra zuzentzen hasi zen unetik, Galdakaoko elkarte gehienekin bilerak antolatu ziren, hauei fenomeno honen inguruan galdetzeko. Izan ere, fase honetan, helburua aurrerago proiektua definitzen lagunduko zuten elkarteek ekarpenak batzea zen. Elkarrizketatutako elkartekide gehienek, udaletxearekin kointzidituz, euskeraren erabilera, generoen araberrako rol banaketa eta droga kontsumoak eta trapitxeoak aipatu zituzten kezka nagusi bezala. Jarraian Susterrak idatzitako txostenean agertzen diren hitz batzuetan generoaren araberrako rol banaketa argi eta garbi antzeman dutela ikusiko dugu:

En cuanto a la perspectiva de género en algún caso hemos podido comprobar que se mantienen roles estereotipados, reconociendo tanto chicas como chicos que son ellas las más responsables y las que ponen orden y se encargan principalmente de mantener el local recogido y limpio mientras ellos se encargan principalmente de mantener llenas las neveras. Los comentarios sexistas han sido más habituales en las lonjas únicamente de chicos o chicas que en las mixtas. (CL.CS.G.I.SUSP)

Gai hauek, eta gazteek aurreke fasean zein fase honetan egindako elkarrizketa batzuetan adierazitakoak (arazo legalak, langabezia, emantzipazioa...) bilakatu dira gaur eguneko esku hartzearen oinarri.

3.3.3 Lehen sarrera txamietan

Esku hartze sozio-hezitzaile honetaz ari garenean, 1. 2. eta 3. faseak⁴ kontuan izan beharko ditugu. Izan ere, ez ziren hezitzaile berberak izan batean eta bestean lanean ibili zirenak. 1. fasean aritu zen hezitzaile galdakaoztarra, Galdakaoko haurtzaro, nerabezaro eta gaztaro arloan erreferentea den emakumea da. Izan ere, luzaroan ibili da ludoteketan, topaguneetan, udalekuetan eta beste hainbat proiektutan lanean. Horrek, erraztasun batzuk eman zizkion bai kontaktuak lortzerako orduan, bai eta errealitatearen fasean elkarrizketak egiterako orduan ere, bere aurpegia jada ezaguna zelako eta gazte askok proiektu hauetakoren batekin lotzen zutelako. Hezitzaileak harrera on honek nolabaiteko harridura eragin ziola adierazi zuen elkarrizketan:

Entonces mi sorpresa o nuestra sorpresa fue que la gran mayoría de las lonjas nos invitó a entrar, en este caso a mí porque era yo la persona que me acercaba, me invitaban a entrar sin ningún tipo de problema. Bueno, mucho más aquellas en las que ya me conocían o alguien me conocía y me ponía cara. Pero el entrar explicando que no tenía que ver con un control, sino más bien con un jo, qué nos contáis, por qué estáis en las lonjas, qué echáis en falta. Bueno, pues eso facilitaba mucho el acceso. Entonces bueno, la acogida fue muy buena, sorprendentemente buena. M.I.E.G.ED.E

3. fasean egin izan diren sarreretan, orokorrean honen guztiz kontrakoa gertatu zela ikusiko dugu, lehenbizi hezitzailearen hitzen bidez eta jarraian gazte baten hitzetan:

Koadrila eta perfilaren arabera baina bai egia da orokortasunean oso arraro ikusten dutela. Niri logikoa iruditzen zait. Ikusten dute oso arraro eta pertsonaren arabera ikusten dute arrotza ze klaro esaten dute bueno eta tipa hau nor da osea nire txamian sartzeko eta zertarako dator. Dago kriston mesfidantza, hori alde batetik. Mesfidantza batez be udalaren irudiagatik eh? M.I.E.G.ED.E

Sí, claro, primero le interrogamos a ella. ¿Quién eres? ¿Qué tiene que ver esto con lo otro? La pobre mujer nos estuvo contando, nos tuvo que explicar bien, bien quién era y lo que iban a hacer. Claro de repente nos llega porque le habían dado nuestro teléfono desde cultura del ayuntamiento, una tía a hacernos preguntas, de quien eres tú lo primero a ver, y eso y bueno eso... M.I.E.G.M.28.E.

Adierazpen hauetan antzeman daiteke gazteek susmagarri ikusten zutela hezitzaileen figura hori, ez zutela argi ikusten zer dela eta txamian sartu nahi zuten eta haiekin berriketan ibili. Halere, ikus daitekeenez, positibotzat jotzen zuten haien beharrianak eta gogoak entzuteko asmo hori:

⁴ 1. fasearen ardura Suspergintza elkarteak hartu zuen. 2. fasean, aldiz, Susterrak hartu zuen bere gain ardura, eta bi hezitzaile (1. fasean aritu ez zirenak) jarri zituen proiektuan lanean. Fase honetan berriro ere errealitatearen analisia berregin zen, Suspergintzak batutako informazioan oinarrituz. Azkenik, 3. fasea, Susterrako hezitzaileak txamietan sarrerak egiten hasi zirenekoa, alegia. Horretan, lehenengo kontaktuak eta etorkizunean harremanak sortzeko aukerak aztertu ziren.

Sí, nos preguntó (Educatora del Programa actual), nos hizo unas preguntas para conocer la realidad de, más o menos lo que estamos hablando ahora. La realidad de Galdakao, de nuestro txami y de nuestra opinión y de nuestras carencias, digamos. Y yo creo que eso nos puede beneficiar si luego esos datos van al ayuntamiento ¿no? Para que luego puedan ayudarnos. M.I.E.G.M.28.E.

Sarrera hauek egin ahal izateko erabilitako estrategiak bizpahiru izan ziren. Hasieran, kontaktu zuzenen bitartez lortu zen txamian sartzeko aukera, elkarteekin egindako bileretan ezagututako jendearekin esaterako. Gero, behin txami batean sartuta, beste txami batean zegoen nor edo nor ezagutzen zuten galdetzen zuten, eta horrela beste batzuetarako sarbidea lortzen zuten. Azkenean, behin hauek bukatuta, 2015eko uztailea aldera areto futbol txapelketa antolatu zuten hezitzaileek txami batzuen laguntzaz, eta horretan bertaratu zirenen artean kontaktu gehiago egitea lortu zuten. Azaldutako azken hau, txapelketarena, 2. faseari dagokio. 1. fasean, batez ere aipatutako lehen bi estrategiak erabili ziren.

Amaitzeko, aipagarria da 1. fasean egindako elkarrizketa batzuk txamiko atean edota topaguneko bulegoan izan zirela, gazteek nahiago zutenaren arabera. 2. eta 3. fasean legez, beste batzuk txami barruan gauzatu ziren.

3.3.4 Harremana sortzea txamikideekin

Gaur egun Galdakaon martxan dagoen prozesua 3. fasean dago. Esku hartzea 2015eko urtarrilean hasi zen eta apirilera arte luzatu zen. Hau bukatuta, apiriletik aurrera 3. fasearekin hasi, eta orain arte harreman sortze prozesu horretan murgilduta dabilta hezitzaileak. Esku hartzea prozesu jarraigoarekin aritzeko 7-8 txami hautatu dituzte, haien beharrian, adin tarte, genero eta haien prozesu horri ekiteko gogoan arabera. Beste bospasei txamirekin erlazioa ere badute, baina hau aldizkakoagoa da. Era berean, aurrerago ekintza handi bat antolatzea erabakitzeotan, deialdi irekia egiteko aukera badagoela aurreikusten dute. Jarraipen hau egiteko eta sistematizatu ahal izateko, jarraipen fitxez baliatzen dira. Hauetan, aurreko bi asteetan gertatutakoan oinarrituz, hurrengo bi asteetarako igurikapenak idazten dituzte. Hau ebaluatze sistema ere bada, aste horietan zehar asmo horiek bete diren konproba daitekeelako, bai eta kausa-efektuak antzematen laguntzen duelako. Hurrengo asteetarako jardura horiek, 3 eremutan banatzen dituzte: "zuzeneko esku hartzea", "zeharkako esku-hartzea" eta "taldearekin edota administrazioarekin egin beharreko esku hartzea". Horrela kasuan kasu norekin lan egin behar duten alde zehazten dute.

Harreman hau eraikitzeko eta gazteria programa honen garapenean parte hartzen has dadin, 1. faseko hezitzaileak antzeman zuen gakoetako bat “lider positiboena” izan zen. Berak indargune argi izan zitezkeen gazteak ia txami guztietan topa zitekeela baieztatzen zuen: “... yo sí que he identificado que dentro de las lonjas había personas que eran... a ver cómo digo yo esto, como líderes positivos, tenían un papel fundamental, o sea, pero fundamental y vital.” P.I.G.ED.E

Halere, aldi berean “lider positibo” hauei dagokienez egoera oztopotzaile bat ere identifikatu zuen. Hezitzaileak zioen hauek ezin zituztela haiek zuten grina eta gauzak antolatzeke gogoak gauzatu “porque la gran mayoría estaba en otra dinámica y se veían muy arrastrados y arrastradas.” P.I.G.ED.E

3.3.5 Udaletxearekin harremana

Atal honetan alde batetik proiektua zuzentzen ari diren hezitzaileen eta udaleko langileen arteko erlazioaz arituko gara. Bestetik, gazteek udaletxearen inguruan duten iritzia batuko dugu, bai eta udaletxearekin izandako bizipen batzuk ere.

Programako hezitzailea da lanaren ardatza Galdakaon. Beraz, bera da horrenbeste eskatzen den eta hain garrantzitsua den gazte lonjeroen eta udaletxearen arteko zubi lanak egiten dituen. Zubi lan hori eraginkorra eta iraunkorra izan dadin, gazteria teknikaria eta hezitzailea astean behin batzen dira, proiektuaren gorabeherak komentatzeko eta honen martxaren berri emateko.

Gazteek udaletxearekin duten erlazioa, aurreko ataletan ikusi ahal izan dugun moduan ez da egokiena. Gazteek udal administrazioa ez dute hurbil sentitzen, arrotza egiten zaie. Honen adibide da gazte batzuek salatzen dutela udaletxera zer edo zer eske hurreratu direnean, leihatilan zegoen pertsonarengandik jasotako tratua txarra izan dela, eta, noski, horrek ez du inondik inora laguntzen.

Ondorioz, erlazioa nahiko kaskarra dela ikusita, proiektu honen arrakastarako bitartekari lanak egin beharko dituen hezitzailearen lanak berebiziko garrantzia izango du.

3.3.6 Hezitzailearen rola eta profila

Horrelako proiektu batean aritzen den hezitzaile bati hainbat ezaugarri eta trebezia eskatzen zaizkio. Hemen, profil ideala deskribatuko dugu, eta 1. zein 2. faseko hezitzaileen kasuan hauetako zein ezaugarri betetzen dituzten aztertuko dugu. Irakurritako dokumentaziotik eta hezitzaileei egindako elkarrizketetatik ondoriozta daiteke hezitzailea ahal den neurrian gazteenganako hurbiltasun erlazio hori eraikitzeke gai izan behar dela. Beraz, errazagoa izango da nerabe eta gazteei ezaguna edota erreferente izan zaien pertsona baten kasuan erlazio hori eraikitzeke ateak zabaltzea. Hau zen 1. fasean lanean aritu zen hezitzailearen kasua. Bera, herriko beste proiektu batzuetan ibilitakoa denez, gazte askorentzat “aurpegi ezaguna” zen.

Horrez gain, udaletxearekin koordinazio lanak egiten trebea izan beharko da, eta baita udaletxearen eta gazteen arteko bi noranzkoko harremanean zubi lanak egin. Noski, aurretik txamiekin zerikusia duen beste proiektu batzuetan ibili izanak esperientzia ematen du, 2. eta 3. faseaz arduratu diren hezitzaileen kasuan bezalaxe.

4. Ondorioak

Galdakaoko esku hartze prozesuaren inguruan egindako azterketa honetan txamiek nerabe eta gazte hauen bizitzetan zer nolako rola jokatzen duten ikusi ahal izan dugu. Lonjak, kasu askotan “bizitzarako entsegu-leku” aproposak dira, horietan egunerokotasunean sortzen diren kontuei gurasoen edo helduen laguntza zuzen barik aurre egin behar zaielako, bai eta beste kideekin elkarbizitzen ikasi. Kontu hauetako asko eta asko ez lirateke beste testuinguru batean agertuko, eta ondorioz, txamiek prozesu horietatik ikasteko aukera eskaintzen dute. Gainera, adiskideen artean egoteak, elkarrengandik ikasteko eta elkarri laguntzeko aukera ere ematen du.

Argi dago, garapen eta ikaskuntza hauek ez direla soilik txamietan egotearen ondorio, norberaren garapenean horrenbesteko garrantzia duen garai honetan beste hainbat aldagaik ere zeresana baitute. Garapen eta ikaskuntza potentzial honetan laguntzeko edo bideratzeko, akonpainamenduaren beharra kasu askotan ezinbestekoa da. Galdakaoko nerabe gazteenen kasuan, honen beharra are begi bistakoagoa da. Izan ere, oraindik ez dira guztiz heldu, eta arazo eta gatazka gehiago izaten dituzte lonjetan egoten direnean. Gauzak horrela, esku hartzearen ikuspegia gazteei mugatzea egoeraren alderdi bati so egitea baino ez litzateke izango. Gakoa, komunitatearekin elkarlanean

aritzean dago, horrela lortuko baita txamiak eta hauetan dauden gazteak komunitatearen agente aktibo izatera igarotzea.

Elkarlan honetarako aintzat hartzekoa da komunitateek, oro har, azken urteak arte lonjekiko eta gazte lonjeroekiko izandako iritzia nahiko ezkorra izan dela. Oraindik ere aurreiritzi eta mesfidantza handia badago ere, gutxika-gutxika azken urteetan egoera hobetuz joan da, eta gero eta gehiago dira hauen onurak eta aukerak aitortzen dituzten herriko elkarte, guraso eta komunitateko bestelako agenteak. Administrazio publikoa ere honetaz ohartu bada ere, oraindik hauen eta gazteen artean urruntasuna eta nolabaiteko mesfidantza somatzen da.

Proiektu honek hezitzaileak lonjetara hurbiltzea ahalbidetzen du, eta esan bezala, honek gazteengan eta komunitatearengan izan dezakeen eragina oso baikorra izan daiteke. Halere, planteamendua hezitzailea proiektu jakin bati soilik lotua agertzea baino, udal administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuen baitan sartzeari izango litzateke. Honela, prozesuaren jarraitasuna bermatuko litzateke, prozesu hezitzaile osoa eratzeko aukera gehiago emanaz eta hainbat gazte belaunaldirentzat hezitzaile hori edo horiek erreferentzia bihurtuz.

Azkenik, lonjek gaur eguneko gazte askoren bizitzan, zuzenki edo zeharka eragina dutela ukaezina da. Galdakaoko kasuan, gazteekin eta haien inguruko komunitateko agenteekin esku hartzea posiblea dela ikusi dugu. Gazteek badute auzoan edo herrian ekintzak antolatze gaitasuna, bai lonja arteko ekintzak bai eta biztanleriak orokorrean parte har dezan. Horretarako behar duena, nolabaiteko ahalduntzea da, lehen bultzada ematea, alegia. Potentziala hor dago, eta gazteei parte hartze aktiboaren bidea erakustea besterik ez dago haiek abian jar daitezten. Era berean, auzokideak, elkartekideak eta udal administrazioak noranzko berean ibiltzea ezinbestekoa da, eta hori errazteko hezitzailearen figura agertzen da. Bera baita hauen artean zubi lanak egin ditzakeena, prozesuaren eta bakoitzaren rola ikuspegi osoagoa izanik, eta batzuen eta besteen beharrianak eta interesak ezagututa. Beraz, Galdakaoko udalerrian martxan hasi berri den prozesu hau oparoa izan daitekeela begi bistan dago, eta orain arte lan egin den moduan jarraituz, emaitzak laster ikusiko ditugu.

5. Erreferentzia bibliografikoak

Álvarez, C. eta Maroto, J.L. (2012). La elección del estudio de caso en investigación educativa. *Gazeta de Antropología*; 28(1), zg.

Ayarza, E., Fernandez, A.M eta Mendia, R. (2014). Aisialdiaren ikuspegi hezitzailea hurbilpena XXI. mendean. Aisi Hezi Fundazioa.

Bayón, F. eta Ortega, C. (2014). El papel del ocio en la construcción social del joven. *Documentos de Estudios de Ocio*, 97-122. Universidad de Deusto.

Berrio-Otxoa, K., Hernández, J.M eta Martínez, Z. (2002). *Los adolescentes y el tiempo libre: Mirando al futuro 2001-2002*. Leioa: Universidad del País Vasco

Bilbao, N. C, Gaztañaga, M. B. eta Imatz, O. L. (2013) *Gazteen lonjak eta lokalak EAEn*. Donostia-San Sebastian: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Bisquerra, R. et al. (2009). *Metodología de la investigación educativa*. Madrid: La Muralla.

Callejo, J. (2002). Observación, entrevista y grupo de discusión: el silencio de tres prácticas de investigación. *Revista Española de Salud Pública*, 76 (5), 409-422.

Casal, J. (2002). TVA y políticas públicas sobre juventud. *Revista de Estudios de juventud*, (59), 1-13.

Casal, J., Garcia, M., Merino, R., eta Quesada, M. (2006). Aportaciones teóricas y metodológicas a la sociología de la juventud desde la perspectiva de la transición. *Papers*, (79), 21-48.

Coffey, A., Hall, T. eta Williamson, H. (1999) Self, space and place: youth identities and citizenship. *British journal of sociology of education*, 20(4), 501-513.

Cuenca, M. (2010), La Fuerza transformadora del ocio. *Documentos de estudios de ocio*, (4), 17-82.

Du Bois-Reymond, M. eta López Blasco, A. (2004) Transiciones tipo yo-yo y trayectorias fallidas: hacia las políticas integradas de transición para los jóvenes europeos. *Revista de Estudios de Juventud*, 65(04), 11-29.

Fabrègues, S. eta Paré, M. H. (2013) *El grupo de discusión y la observación participante en psicología*. Barcelona: UOC.

Flecha, R. eta Tellado, I. (2015). Communicative Methodology in Adult Education. *Cadernos CEDES*, 35(96), 277-288.

Gallego, J. (2002). Observación, entrevista y grupo de discusión: el silencio de tres prácticas de investigación. *Revista española de salud pública*, 76(5), 409-422.

- Gallie, D. eta Paugam, S. (2000). *Welfare Regimes and the Experience of Unemployment in Europe*. Oxford: Oxford University Press
- Gómez, A., Siles, G., eta Tejedor, M. (2012). Contribuyendo a la transformación social a través de la Metodología comunicativa de investigación. *Qualitative Research in Education*, 1(1), 3657. doi: 10.4471/qre.2012.02
- Laespada, M.T., Arostegi, E., Martínez, I. eta Sarabia, I. (2008). *Las lonjas: ¿una participación ciudadana efectiva? La experiencia de Portugalete*. Bilbao: Universidad de Deusto - Instituto Deusto de Drogodependencias.
- Lazkano, I., Madariaga, A., Rubio, I. eta Pinillos, J. (2013). *Gazte Izaera: Uso y gestión de espacios para la juventud en los municipios de Bizkaia*.
- Moreno, A. (2008). Rasgos característicos de la transición a la vida adulta de los jóvenes españoles en marco comparado europeo. *Revista pensamiento Iberoamericano*, (3), 17-46.
- Perez- Campanero, M. P (1994). *Cómo detectar las necesidades de intervención socioeducativa*. Madrid: Narcea.
- Rodríguez, E. (2012). *Ubicación en el entorno y salud de las personas jóvenes Informe Juventud en España-n*. Madrid: Instituto de la Juventud
- Tejerina, B., Carbajo, D. eta Martínez, M. (2012). *El fenómeno de las lonjas juveniles. Nuevos espacios de ocio eta socialidad en Vitoria – Gasteiz*. Leioa: UPV/EHU: Departamento de Sociología 2.
- Travlou, P. (2003). *Teenagers and public space. Literature review. OPENspace: the research centre for inclusive access to outdoor environments*. Edinburgh.. Edinburgh College of Art and Heriot-Watt University.
- Vallés, M. (1999). *Técnicas cualitativas de investigación social. Reflexión metodológica y práctica profesional*. Madrid: Síntesis.

6. Bestelako iturriak

Estudio sobre lonjas y juventud. Bizkaia

Galdakaoko udaleko webgunea (2015)

Ikuspegi (2011) Galdaoko biztanleriaren inguruko datuak.

<http://ikuspegi.boslan.es/mapasikuspegi/inicio.aspx>

Leku Gazteak. Programa de iniciativas con jóvenes y lonjas. Galdakaoko udala.

Suspergintza Elkartea (2014). *El fenómeno de las lonjas en Galdakao. Aproximaciones, oportunidades y propuestas de futuro*. Argitaratu barik.

Susterra (2015). Galdakaoko lonjetan giza hezkuntzan esku-hartzeko programa.
Argitaratu barik.

7. Eranskinak

1. eranskina: “Las prácticas de éxito en participación y crecimiento juvenil en lonjas en Bizkaia” ikerketako helburuak
2. eranskina: Galdakaoko txamien kokapena eta kopurua zonaldeka
3. eranskina: Galdakaoko hezitzaileari egindako elkarrizketa eredua
4. eranskina: Galdakaoko gazteei egindako elkarrizketa eredua
5. eranskina: Galdakako elkarteentzako sintesi dokumentua
6. eranskina: Kategorizazio sistema
7. eranskina: Galdakaoko 1. Faseko hezitzaileari egindako elkarrizketaren transkripzioa
8. eranskina: Galdakaoko 1. faseko hezitzaileari egindako elkarrizketaren kategorizazioa.
9. eranskina: Galdakaoko bi gazte lonjerori egindako elkarrizketaren transkripzioa
10. eranskina: Galdakaoko bi gazte lonjerori egindako elkarrizketaren kategorizazioa